



ANTZIZAR KIROLDEGIAN IGERILEKUETAKO URAREN BERRIZTAPENEN ENERGIAREN BERRESKURATZAILEAREN HORNIDURA, INSTALAKUNTZA ETA MARTXAN IPINTZEA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA.

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honi jarraiki gauzatuko den kontratuaren helburua izango da honako hornidura: **ANTZIZAR KIROLDEGIAN IGERILEKUETAKO URAREN BERRIZTAPENEN ENERGIAREN BERRESKURATZAILE BAT IPINTZEA.**

- Igerilekuetako berriztapeneko uraren beroa berreskuratzeko eraginkortasun handiko moduloa.
- Antzizar Kiroldegiko jolaseko eta hidroterapiako igerilekuentzako.
- Igerilekuetako irteerako uraren beroa berreskuratzeko, sareko uraren berriztapenean egiten den unean, eraginkortasun eta bero energia erabilgarri handiak lortzeko diseinatua.
- Sistema bateratua, igerilekuetan instalatzeko, erraz ipini eta kendu daitekena, igerilekuetan ohiko diren zirkuituetera egokitu daitekena.
- Energia berreskuratzailea, uraren berriztapenean galdutakoa eta ontziko pareten bitartez galtzen dena ere bere osotasunean edo neurri handi batean berreskuratu ditzakena.

Eskaintza osatzen duten dokumentu guztiek eta kontratua formalizatzen den unean esleipendunak bere adostasuna erakusteko sinatu beharko duen Administraziozko Klausura Bereziaren Plegu honek kontratuzko izaera izango dute.

Lanen ordainetan, Beasaingo Udalaren Kirolaren Fundazioko Publikoak esleipendunari behar bezala eginiko lanari dagokion zenbatekoa ordainduko dio, aurretik hitzartutako prezioaren arabera.

2. EPEA

Kontratu honen xedea den hornikudura, instalazioa eta martxan ipintzea betetzeko guztizko epea gehienez **BI HILABETE BATEKOA (2)** izango da, kontratua sinatu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Kontratistak atzerapena izango du epea igarotakoan eta ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldeztu aurretik ohartaraztea.

Energia Berreskuratzailearen hornidura, instalakuntza eta martxan ipintzeko kontratistak beharrezkoak diren baliabideak aurreikusi beharko ditu.



3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Aipatutako **“ANTZIZAR KIROLDEGIAN IGERILEKUETAKO URAREN BERRIZTAPENeko ENERGIAREN BERRESKURATZAILE BATEN HORNIDURA, INSTALAKUNTZA ETA MARTXAN IPINTZEA”** izeneko ekimenaren oinarrizko lizitazio prezioa, gehienera ere bere aurrekontuko kopurua izango da.

Administrazioak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa **41.000,00** €koa da (BEZ GABE) eta hauetatik 33.500 € hornidurari dagokio eta 7.500 € instalakuntzari eta martxan ipintzeari.

Kopuru hori lehiakideek beherantz hobetua izan daiteke eta eskaintza bakoitzaren zenbatekoan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) EZ dagoela sartuta ulertuko da, baina bi kontzeptuek bereizita agertu beharko dute.

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko jarduneko urteko aurrekontuaren kargura finantzaketa aurrez ikusia dago.

5. NOLA ORDAINDU

Horniduraren prezioa hornidura, instalakuntza eta martxan ipintzea hartu-emandakoan ordainduko da, faktura aurkeztu eta gero.

Legez xedatutako epearen barruan, aldi bakarrean ordainduko da eta, horretarako, dagokion fakturak Beasaingo Udaletxean izandako sarrera-data kontuan hartuko da.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 lanegunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatuzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Energia berreskuratzailerak aurkeztu, instalatu eta martxan ipini behar da baldintza-agiri honetan ezarritako denboran, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritik.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, hornidura Administrazioari eman baino lehen ondasunetan galera, matxura edo kalteak izateagatik, beti ere, Administrazioa berandutzean erortzen ez bada ondasunak hartzeko garaian.

Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da hornidura-eragiketaren ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan aurreikusten diren egoeretan eta beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

12. HORNIDURA, INSTALAKUNTZA ETA MARTXAN IPINTZEAREN HARTZEA ETA BERME EPEA

Hornidura, instalakuntza eta martxan ipintzea eman eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, horniduraren harrera formala eta positiboa egingo da.

Energia berreskuratzailerak jasotzeko moduan ez badago, hori berariaz agerraraziko da eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzentzeko edo hornidura berria emateko, hitzartutakoaren arabera. Akatsak zuzentzen ez baditu, edo hornidura berritzen ez badu, Administrazioak kontratistaren kontura utziko du hornidura. Horiek horrela, Administrazioak ez du ordaindu beharko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Gainera, urte beteko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Administrazioak, berme-epean, akatsak dituzten hornidurak berritu edo konpondu daitezela eskatzeko eskubidea izango du.

Berme-epean, jasotako hornidurak, kontratistaren akatsen ondorioz, helbururako egokiak ez direla konturatzen bada Administrazioa, eta susmatzekoa bada akatsak konponduta edo hornidura berria emanda nahikoa izango ez dela, Administrazioak atzera bota ditzake hornidurak, kontratistaren kontura utziz.

13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Mankomunitateak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Mankomunitateak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Hornidura-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 299. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratazio espedientea izapide arrunta bidez bideratuko da.

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak, zati bakoitzeko, eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

- Proposamen ekonomikoa. **0 eta 40 puntu** bitartean balioetsiko dira
- Bermearen epea. **0 eta 5 puntu** bitartean balioetsiko da.

- Mantenu zerbitzuaren epea. **0 eta 5 puntu** bitartean balioetsiko da.
- Horniduraren kalitate tekniko eta funtzionala. **0 eta 50 puntu** bitartean balioetsiko dira

A) Aipatu irizpideen artean, **AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK**, jarraian adierazten direnak, honako formula hauek aplikatuz balioetsiko dira:

A.1. PROPOSAMEN EKONOMIKOA:

1.- Proposamen ekonomikoak, zati bakoitzean, **0 eta 40 puntu bitartean** balioztatuko dira ondorengo puntuaketa-sistemaren arabera:

- **Eskaintza merkeenari** puntuazio masimoa emango zaio, hau da, **40 puntu**.
- Gainerako eskaintzei emango zaizkien puntuak honela kalkulatu dira: bere bajako ehunekoaren eta eskaintza merkeenaren ehunekoaren arteko diferentziaren emaitzazko puntuak puntuazio onenari kenduta.

2.- Ehun eta lizitazio-prezioarekiko proposamen ekonomiko bakoitzak suposatzen duen ehunekoaren arteko diferentzia izango da proposamen horren “baja”:

$$100 \times [1 - (\text{proposamena} / \text{lizitazioa})]$$

3.- “A baja” deituko diogun “baja” handiena duen proposamenari puntuazio maximoa emango zaio, hau da, 40 puntu. Beste edozein B proposamen ondorengo formularen arabera haztatuko da:

$$40 - (A \text{ baja} - B \text{ baja})$$

A.2. BERMEAREN EPEA (eskatutako urtea baino gehiago): urte bakoitzeko 1 puntu, 5 puntu bitartean.

A.3. MANTENU ZERBITZUAREN EPEA, kontratatzailearentzat kosturik gabe: urte bakoitzeko 1 puntu, 5 puntu bitartean.

B) Aipatu irizpideen artean, **BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA** izan eta automatikoki antzematen direnak baino lehenago balioetsiko direnak, honako hauek dira:

B.1. HORNIDURAREN KALITATE TEKNIKO ETA FUNTZIONALA:

Irizpide honetan, Energia Berreskuratzailaren ezaugarri tekniko eta funtzionaletatik ondorioztatu daitezkeen kalitatea eta atera daitezkeen ondorioak kontutan hartuko dira, beraien egokitasuna eta zerbitzurako moldaketa baloratu asmoz, gehienezko **50 puntu** arte.

- 1) Energia Berreskuratzailearen ERAGINKORTASUNA. Memoria Teknikoa. Ezaugarri teknikoak.

- Energia berreskuratzailea Antzizar Kiroldegiko igerilekuetara egokitzea.
- Instalazioari utzitako bero aurrikuspenak.
- Aurrikusitako kontsumoak.

Baloratuko da proposamenak aurkeztutako ekipoaren errendimendua, egokitzapena eta fidagarritasuna: **35 puntu arte**.

- 2) Energia Berreskuratzailearen INSTALAZIOA. Memoria Teknikoa.

- 2 Ontzietan egin beharreko instalazioaren deskribapen zehatza.
- Materialen zehaztapenak. Sendotasuna, gogortasuna, estankotasuna, korrosioarekiko iraupena eta ekipoen, euskarrien burdineriaren, torlojuteriaren eta bestelako materialen erresistentzia eta iraupena.

Baloratuko da instalazioaren egokitzapena, behar diren baliabideen antolaketa eta materialen ezaugarriak iraukortasuna bermatzeko: **15 puntu arte**

Xede horretarako, eskeinitako Energia Berreskuratzailearen ezaugarri teknikoak dokumentuen bidez eta era arrazionalen behar bezala zehaztearen garrantzia azpimarratu nahi da (ziurtagiriak, planoak, eskemak, grafikoak, argazkiak, etab. erantsiz), bere egokitasuna eta zerbitzurako moldaketa zenbatetsitzeko. Okerrak, zehaztun ezak eta datu hutsuneak balorazioan zehatuko dute.

17. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaiak honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Kirolaren Udal Fundazioko Lehendakaria
- 1. Batzordekidea: Beasaingo Udaleko Idazkaria
- 2. Batzordekidea: Beasaingo Udaleko Kontuhartzailea
- 3. Batzordekidea: Kirolaren Udal Fundazioko Zuzendari-Kudeatzailea
- Mahaiko idazkaria: 1. Batzordekideak beteko idazkari lana

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako

arrazoiak direla eta. Kaudimena Plegu honetan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatu eta ebaluatuko da.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Proposamenak Beasaingo Udako Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean aurreikusitako beste edozein modutan.

Epea: Egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko **hamabost (15)** egun naturaleko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, epea hurrengo lehen egun baliodunera arte (14.00ak arte) luzatuko da.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean (www.beasain.eus) ere eskuratu ahal izango da.

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko **sei egunetan**, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez **zortzi egun** lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo

baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatzailleak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

20. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzailleek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: “ANTZIZAR KIROLDEGIAN IGERILEKUETAKO URAREN BERRIZTAPENEN ENERGIAREN BERRESKURATZAILAREN HORNIDURA, INSTALAKUNTZA ETA MARTXAN IPINTZEA EGITEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

“A” kartazalaren azpititulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lizitatzaillearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo enpresa bat ordezkatzuz jardunez gero, askietsitako ahalorde notariala. Enpresa pertsona juridikoa izango balitz, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatua egon beharko du, Merkataritza Erregistroaren 94.1. 5. artikularen arabera.

b) Lizitatzaillea pertsona juridiko bat denean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa- edo, hala badagokio, aldaketa-eskritura, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplika dakioken merkataritza-legeriaren arabera inskripzioa exiji daitekeenean. Pertsona juridikoa ez bada, jarduteko gaitasuna eskrituren, eraketa-agiriaren, estatutuen edo sorrera-egintzaren bitartez egiaztatuko da. Bertan, jarduera hori erregulatzen duten arauak jaso beharko dira. Arauok, hala badagokio, Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

Europar Batasuneko kide diren nazioetako enpresaburu ez espainiarrak baldin badira, beren inskripzioa egiaztatuko dute, finkatuta daudeneko estatuaren legeriaren arabera, edo zinpeko

aitorpen edo egiaztagiri baten bidez, aplikagarri zaizkion komunitetako xedapenekin bat etorritz.

Atzerriko gainerako enpresaburu kasuan, jarduteko gaitasuna frogatzeko, Espainiak estatu horretan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena edo enpresa kokaturik dagoen lurraldeko Bulego Kontsularrarena aurkeztuko da.

c) **Berariazko adierazpen erantzulea**, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren **kontratu-debekuetako** batean ere ez dagoela adierazten duena. Bertan berariaz jasoko da ez dutela modu irmoan zigortu laneko segurtasun eta osasun arloan egindako arau-hauste oso larriren batengatik (SPKLTBaren 60. c) artikulua), eta **zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak** betetzeko gaitan egunera dagoela, HAKLEOren 13. eta 14. artikuluetan (1098/2001 ED, urriaren 12koa) jasotzen den moduan eta hedadurarekin, baldin eta ez duten azken bi egoera hauek **egiaztatzeko ziurtagiriak** aurkezten.

d) **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan**, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatzailleak **alta-agiria** aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren **azken ordainagiria**, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan **bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena** erantsiko du.

e) Lizitatzaillearen ekonomi eta finantza-**kaudimenaren** eta gaitasun tekniko edo profesionalaren **frogagiriak**. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75. artikuluko a) letran eta 77. artikuluko a) eta e) letretan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

- **e.1.: 75 a)** letra, arrisku profesionalei aurre egiteko gutxienez 300.000 €-ko aseguruia izatearen egiaztagiria,
- **e.2.: 77 a)** letra, azken **bost urteetan** eginda energia berreskuratzaileen horniduren zerrenda. Bertan, lan horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adieraziko dira. Hornidurak eskumena duen organoak emandako edo bisatutako ziurtagirien bidez frogatuko dira, hartzailea sektore publikoko entitatea denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek emandako ziurtagiria, edo ziurtagirik ezean, enpresariaren adierazpen baten bidez frogatuko da.

f) **Aldi Baterako Enpresa Elkartea** osatuz lizitaziora hainbat enpresaburu aurkezten badira, elkartea osatzen duten enpresaburuetak bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan finkatutakoaren arabera. Hortaz, aldi baterako bategite horren kaudimena zehaztu ahal izateko, enpresa osatzen dutenetako bakoitzak egiaztatu dituen ezaugarriak batu egingo dira (urriaren 12ko

1098/2001 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 24.1. artikulua).

Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuek, **dokumentu pribatu** batean hura osatzen dutenen izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adieraziko dute, baita kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak gauzatzeko behar besteko ahalordeak izango dituen pertsonaren izena ere. Halaber, kontratuaren esleipendun suertatuz gero, aldi baterako elkartean formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela adieraziko dute. Dokumentu hori **Aldi Baterako Enpresa Elkarteko kide diren enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko du.**

g) **Atzerriko enpresak** badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzailari legokiokkeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko **helbide elektronikoa**, SPKLTBaren 151.4 legean xedatutakoaren arabera.

i) Gutun-azal honetan sartutako **dokumentu guztien zerrenda.**

Goiko a), b) eta e) (**e.3 atala izan ezik**) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, Estatuko Lizitatzailleen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko **ziurtagiria**, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiriaren bitartez egiazta daiteke. Aipatu ziurtagiriarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen **lizitatzailleen ardura-adierazpena** ere gehitu beharko da.

Aurreko atalean aipatutako ziurtapena elektronikoki eman daiteke.

B” kartazalaren azpititulua hau izango da: “BALIO JUDIZIO BATEN ARABERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEAK”. Bertan, baldintza-agiri honen 16. klausulan adierazitako balio-judizio baten menpe dauden irizpideei buruzko agiriak jasoko dira.

a) Eskainitako Energia Berreskuratzailleen Memoria Teknikoa.

b) Energia berreskuratzailleen instalakuntzaren Memoria Teknikoa.

“C” kartazalaren azpititulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA ETA AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) **1. ERANSKINEan** xedatutako ereduaren arabera AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEEN PROPOSAMENA.

Jatorrizko agiriak edo kopiaak aurkez daitezke. Kopiaak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak **FOTOKOPIA HUTSEAN** ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.

21. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. "A" KARTAZALA IREKI ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK PROZESATZEA:

Mahaiak "A" kartazalean dauden agiriak sailkatuko ditu. Horretarako, lizitatzaileren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibideak edo agiri osagarriak eska daitezke. Mahaiak, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 22. artikuluan adierazten den eran jardungo du, bost egun naturaleko epean. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki ohelean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lizitatzailerek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitatzailerei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatutako Araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

2. ENPRESAK AUKERATZEA:

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 20. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

3. "B" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA:

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten arabera irizpideen baitan, publikoki irekiko da SPKLTBak 146.1. artikuluan aipatzen duen administrazio-dokumentazioa ireki den unetik gehienez bederatzi egun naturaleko epean. "B" kartazala publikoki irekiko den eguna eta ordua, kontratatzailearen profilean adieraziko da. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, bost egun naturaleko epea emango du horretarako, SPKLaren zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irizpide horiek balioesteko epea 15 egunekoa izango da, irekiera-ekitaldia egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Ekitaldi horretan, "C" kartazala publikoki irekiko den eguna eta ordua jakinaraziko da. Horretaz gain, kontratatzailearen profilean ere adieraziko da.

4. "C" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA:

"B" kartazalean zegoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ostean, "C" kartazala publikoki irekiko da. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, bost egun naturaleko epea emango du horretarako.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

5. ESKAINTZAK SAILKATZEA:

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBaren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean lizitatzailari (edo lizitatzailaeei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, lizitatzailak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarrienaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

6. ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI:

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita **hamar egun** balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena

lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.

- a) Zerga-obligazioak, tokikoak barne, eta Gizarte Segurantzari dagozkionak betetzen dituela justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztea edo kontratazio-organoari egiaztapena zuzenean lortzeko baimena ematea. Ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko ziurtagiriak proposamenarekin batera aurkeztu badira.
- b) Behin betiko bermea: esleipen-prezioaren %5a
- c) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duten kartazaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzailerak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

22. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailari egingo dio esleipena.

Esleipena aste beteko epean egingo da proposamen ekonomikoak ("C" kartazala) irekitzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horren berri lizitatzailerak guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiri nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.
- b) Aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordaintzea. Gastu horien zenbatekoa 120 € izango da.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Orri honetan oinarrituta egingo den kontratua administratiboa izango da, eta Administrazio Klausula Partikularren Orri honen eta Baldintza Teknikoen Orriaren bidez arautuko da.

SPKLTBaren arabera, lehendabizi, bere arau espezifikoak aplikatuko zaizkio eta, horiek ezean, ondoren aipatuko dugun araudia:

- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzaldiko Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTB) eta hau garatzeko xedapenak onartzen dituenak.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zati batez garatzen duena, 3/2011 Legegintzaldiko Errege Dekretuaren aurka ez doan ataletan.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 Legegintzaldiko Errege Dekretuaren aurka ez doan ataletan.
- Herri Administrazioen kontratazioari, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkion gainerako arauak.

Halaber, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazio Klausula Partikularren Orri honen eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesana badago, Orri honetan xedatutakoa beteko da.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik ondoriozta daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu, kontratistari entzun ondoren. Eta hartutako erabakiek administrazio-bidea amaituko dute eta administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren aurrean aurka egin ahal izango da zuzenean. Horrek ez du kaltetuko SPKLTBaren 40tik 49ra bitarteko artikuluek erregulatutako kontratazio-arloko errekurtso berezia, hala badagokio, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein jartzea.

25. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonalak ematea baldin badakar berekin, Datu Pertsonalak Babesteari buruz abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari dagokionez, SPKLTBaren



Legearen hogeita seigarren xedapen gehigarrian eta Legea garatzen duen araudian jasotako obligazioak bete beharko ditu kontratistak.

Ondorioz, kontratua gauzatzean enpresa kontratistak eskura izango duen informazio pertsonal guztia konfidentziala izango da. Enpresa kontratistak eta kontratua gauzatzeko hark izendatutako langileek ezingo dute lanak egiteko eskura izango duten informazio edo datu pertsonalik euren onurarako erabili, edo hirugarren pertsonari eman, baldin eta Administrazioaren baimen idatzia ez badute. Hortaz, eskura dituzten baliabide guztiak erabili beharko dituzte egindako lanaren ondorioz eskuratutako informazioa eta emaitzak gordetzeko edo erreserbatzeko.

Beasainen, 2016ko irailaren 1ean

1. ERANSKINA: AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEEN PROPOSAMENAREN EREDUA.

Lizitatzaillearen datuak: Izen-abizenak
 Helbidea posta kodea
 NAN zenbakia, telefonoa helbide elektronikoa.....
 zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.
 Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak
 helbidea posta kodea
 telefonoa NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa denaren arabera), ANTZIZAR KIROLDEGIAN IGERILEKUETAKO URAREN BERRIZTAPENEN ENERGIAREN BERRESKURATZAILE BATEN hornidura, instalakuntza eta martxan ipintzea prozedura ireki bidez kontratatzeko Beasaingo Kirolaren Udal Fundazioak egindako deia berri izan dudala; hona hemen nire

ADIERAZPENA:

1) Hitz ematen dut hornidura gauzatzeko konpromisoa hartzen dudala hurrengo prezioan, prezio horretan kontzeptu guztiak, instalazio lanak, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-mailako arielak, baita BEZa eta kontratistaren industria-irabazia ere barne, sartuak daudela ulertuko da.

HORNIDURA, INSTALAKUNTZA ETA MARTXAN IPINTZEA	PREZIOA BEZ sartu gabe	% ... BEZ
Antzizar Kiroldegiko jolaseko eta hidroterapiako igerilekuetako uraren berriztapeneko energiaren berreskuratzailearen hornidura.		
Energia berreskuratzailearen instalakuntza eta martxan ipintzea.		

2) Proposamenak bere gain hartzen duen bermearen epea ____ urtekoa da (Gutxinez 1 urte).

3) Proposamenak kontratatzailearentzat kosturik gabe bere gain hartzen duen mantenu zerbitzuaren epea ____ urtekoa da.

4) Administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

5) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

.....en, 2016koaren(a)

Izenpea

2. ERANSKINA: EZAUGARRI TEKNIKOAK

1.- Proiektuaren ezugarri orokorrak:

- Eraginkortasun handiko igerilekuetako berriztapeneko uraren beroa berreskuratzeko eraginkortasun handiko moduloa. Antzizar Kiroldegiko jolaseko eta hidroterapiako igerilekuentzako.
- Igerilekuetako irteerako uraren beroa berreskuratzeko, sareko uraren berriztapenhean egiten den unean, eraginkortasun eta bero energia erabilgarri handiak lortzeko diseinatuak.
- Sistema bateratua, igerilekuetan instalatzeko, erraz ipini eta kendu daitekena, igerilekuetan ohiko diren zirkuituetera egokitu daitekena.
- Energia berreskuratzailea, uraren berriztapenean galdutakoa eta ontziko pareten bitartez galtzen dena ere bere osotasunean edo neurri handi batean berreskuratu ditzakena.
- Kontrol automatiko orokorra duena bere funtzionamendua osotasunean kudeatzeko gai dena, egunero berriztatutako bolumena irakurtzeko aukera, lortutako eta instalazioari utzitako bero energia eta erabilitako energia irakurri eta erregistratu dezakena, internet bitartez urrutiko konexiorako aukera duena.
- Moduloak automatikoki egunero ontzi bakoitzeko berriztatutako ura kontrolatu dezakena, lehen ontziko eguneroko berriztapena amaitu ondoren bigarren ontziko berriztapenera aldatu daitekena.

2.- Modulo berreskuratzailearen eginkizun garrantzitsunak:

- Aukeran egunero berriztatu nahi den bolumena. Arautegia betetzeko bermea.
- Berriztatutako bolumena jarraian neurtzea.
- Berriztatutako eguneroko bolumenaren kontrola eta erregistroa.
- Berriztatzeko gehieneko tartearen hasiera/amaiera orduak aukeratzea.
- Eguneroko berriztapeneko bolumena eta ordutegia aukeran, legediaren aldaketak direla eta ura aurreztu behar den garaietarako.
- Igerilekuko uraren tenperatura aukeran eta hau une oro neurtu daitekena, bero berreskuratzeko bigarren eskaloia kontrolatzeko.
- Dreinatze irteerako ura izoztu ez dadin gutxieneko tenperaturaren segurtasuna.
- Berriztatutako uraren sarrera eta dreinatze irteerako gutxieneko ur emarien segurtasuna.
- Sarrerako berriztapeneko emariak (gehieneko eta gutxieneko) eta dreinatze irteera, martxa ipintzean ajustatu daitezkenak.
- Egunero igerilekura utzitako bero energia neurtzea eta erregistratzea, aukeran berehala irakurtzeko kWak, sareko uraren tenperatura, igerilekura doan uraren tenperatura, igerilekuko sarrera emaria,...
- Egunero guztira kontsumitutako energia elektrikoa neurtzea eta erregistratzea, aukeran berehala irakurtzeko kWak, faseen arteko tentsioa, fase bakoitzeko intentsitatea, erreaktiba...
- Kloro bitartez tratamendua duten igerilekuentzako.
- Internet bidez urrutiko konexioa aukeran router 3G bitartez

3.- Igerilekuen ezaugarri teknikoak.

ANTZIZAR KIROLDEGIA		Ontzia Handia. Jolasekoa (Baliok) medios)	Ontzi Txikia (Hidroterapia)	Bi ontzien totalak
Ontziaren ur bolumena	m ³	780	80	860
Ontziaren azalera	m ²	550	70	620
Proposatutako berriztapeneko bolumena	m ³ /egun	31,2	6	37,2
Igerilekuko uraren temperatura	°C	27	32	-
Sareko uraren temperatura	°C	12,2	12.2	-
Filtroak garbitzen galdutako ura	l/egun	1900	490	-
Lurrinduz galdu den ura	l/egun	2800	360	-
Energía Elektrikoa	kWh/día			10
Energía Galdara	kWh/día	1010	190	1200

Kloro bitartez tratamendua

4.- Energia Berreskuratzaillearen eraginkortasuna azaltzeko erreferentziako energia kostuak.

-Biomasa eta Gas Naturala konbinatuta : 0.031564 €/kWh

-Elektrizitatea: 0,063719 €/kWh

Memoria teknikoan inbertsioaren eta amortizazioaren daturik **EZ** da azaldu behar. Energia berreskuratzeko moduloaren eraginkortasuna soilik aztertu behar da.